

## OHAR OROKORRAK

### BEKEN INFORMAZIOA

2022-23 ikasturteko beken epea uztailaren 15ean irekiko dela jakinarazi digute. Momentuz dakigun bakarra da epea uztailaren 15etik irailaren 30a bitartean izango dela. Informazio gehiago izan ahala zuekin harremanetan jarriko gara.

### UDALEKU IREKIAK

Datorren **ekainak 28tik uztailak 29ra (biak barne)**, zuen seme-alabek parte hartuko duten udaleku irekien berri ematen dizuegu.

Ordutegia goizeko **9:00etatik 13:00etara** izango da.

- \* Sarrera: 9:00-9:30 (sarrera ordua malgua).
- \* Irteera: 12:30-13:00 (irteera ordua malgua).
- \* Udalekua: 9:30-12:30

Tokia: Ixpilla

OHARRAK:

- Hurrek arropa erosoak ekarri behar dute beti.
- Bainujantzia, toalla eta eguzkitako krema egunero ekarri behar dituzte.
- Bisera edo txapela ere ekartzea gomendatzen da.
- Etxetik krema emanda etorri beharko dute eta udalekuan zehar beharrezkoa bada berriz ematen lagunduko zaie.
- Haur bakoitzak bere hamaiketako eta ura ekarriko ditu motxila batean, baina litxarreriarik ez.

## STEAM EMAKUME\* ERREFERENTEEN BILA

Azkenengo urte hauetan INSPIRA programan parte hartu izan dugu, baino aurreko urtean ezin izan genuen lanketa egin ikastolako gazteekin STEAM lan eremuko emakumezko\* erreferente euskaldun falta zegoelako.

Parekidetasuna eta feminismoaren bidean ekarpena egin nahi baduzu, izan zaitez STEAM erreferente!

<http://intranet.inspirasteam.net/>

Link honen bitartez izena eman dezakezu, aipatuz Salvatore Mitxelena Ikastolako proiektuan gustura parte hartuko zenukela. Animatu zaitezte!!

---

**2022-2023 EGUTEGIA**

[ESTEKA](#) honetan 2022-2023 ikasturteko egutegia - ordutegia ikus dezakezue.

---

**2022-2023 EGUTEGIA**

[ESTEKA](#) honetan 2022-2023 ikasturteko egutegia - ordutegia ikus dezakezue

---

## 2022-2023 EGUTEGIA

[ESTEKA](#) honetan 2022-2023 ikasturteko egutegia - ordutegia ikus dezakezue

---

Besterik gabe, agur bero bat.  
ZUZENDARITZA